



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

Segurtasun digitala. Datu pertsonal eta pribatasunaren babesa



Datu pertsonal eta pribatasunaren babesa

Gaitasunaren definizioa:

Datu pertsonalak eta pribatutasuna modu arduratsu eta seguruan zaintzean datza. Adibidez:

- **datuak online partekatzearen** arriskuak ulertu
- **pribatutasuna** babesten duten **legeak** ezagutu
- **dagokien pertsonak** soilik eskuratzea datu pertsonalak

Hitz gutxitan esanda, **datu pertsonalak seguru** daudela eta **etikaz eta errespetuz** erabiltzen direla bermatzea da.



Datu pertsonal eta pribatasunaren babesa eta Adimen artifiziala

- Datu pertsonalen tratamendua **araudiari lotuta** dago (DBEO). Adibidez, laguntzaile birtual batekiko ahots- interakzioak datu pertsonalak dira DBEOren arabera.
- Datu pertsonalen tratamendua hirugarren bati baimendu aurretik baloratu egin behar dira egon daitezkeen **onura eta arriskuak**. Adibidez, telefono baten ahots-laguntzaile batek, robot xurgatzaile bati aginduak emateko erabiltzen denak, hirugarrenei —enpresei, gobernuei, zibergaizkileei— datuak eskuratzeko aukera eman diezaieke.



Datu pertsonal eta pribatasunaren babesa eta Adimen artifiziala

Aintzat izan behar da:

- AA erabiltzean erabiltzaileen **datu pertsonalak babestearen** garrantzia
- AAren ereduetan **gardentasuna eta azalgarritasuna** , erabiltzaileek beren datuak nola erabiltzen diren ulertzeko duten eskubidea bermatzeko.

Ondorioz, datu pertsonalak erabiltzean dauden arrisku etiko eta legalen aurrean **pentsamolde kritikoa** hartu behar dugu.



Datu pertsonal eta pribatasunaren babesa eta Datu-analisia

Garrantzitsua da:

- Datu pertsonalen analisiari aplikatzen zaion **araudia** ezagutzea (DBEO)
- **Datu-bolumen handiak** (big data), tartean datu-pertsonalak, eskuratzean eta biltegitratzean izan daitezkeen arriskuak identifikatzea.
- Datu-analisirako aplikazioak **baimenik gabeko sarbideen** aurrean babesteko beharra ulertzea.



Datu pertsonal eta pribatasunaren babesa eta Datu-analisisia

Ondorioz:

- Datu pertsonalak **helburu espezifiko, jakin eta legitimoekin** soilik erabiliko direla bermatu behar da
- Datu pertsonalak prozesatzean **arduraz eta erantzunkizunaz** egin behar da eta pertsonen pribatutasuna arriskuan jartzen duten praktikak saihestu behar dira
- Datu pertsonala bildu edo aztertu aurretik **erabiltzaileen baimen** esplizitua lortu behar da



Datu pertsonal eta pribatasunaren babesa eta Cloud-sistemak

Ez ahaztu:

- Cloud sistemak aldizka **ikuskatzea**, datuen babesean egon daitezkeen urrakortasunak detektatzeko eta arintzeko.
- Datuak atzitzeko **politikak** ezartzea
- **Pribatutasun- eta segurtasun-estandar altuak** betetzen dituzten cloud zerbitzuen hornitzaileez soilik fidatzea
- Cloud-sistemen erabileran pribatutasuna errespetatu eta babesteko **erakunde-kultura** sustatzea



Adibidea. Enpresako Datu Pertsonal eta Pribatutasuna Babesteko Politika (I)

1. Politika honen **helburua** enpresak langile, bezero eta hornitzaileen datu pertsonalak eta pribatutasuna babestea da, DBEO (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra) betez.
2. Politika hau enpresako **langile guztiei aplikatzen** zaie, baita enpresak tratatzen dituen bezero eta hornitzaileen datu pertsonalei ere.



Adibidea. Enpresako Datu Pertsonal eta Pribatutasuna Babesteko Politika (II)

3. **Datuen bilketa eta tratamendua**; legezkotasuna eta gardentasuna: Datu pertsonalak helburu zehatz eta legitimoetarako bakarrik bilduko dira, interesdunei informazioa nola eta zertarako erabiliko den azalduz.

4. **Datuen Segurtasuna**

- Pasahitzak: Pasahitz sendoak eta bi faktoreko autentifikazioa erabiliko dira datu pertsonalak babesteko.
- Enkriptazioa: Datu pertsonalak enkriptatuta gordeko dira, bai datu-baseetan bai transmisioan.



Adibidea. Enpresako Datu Pertsonal eta Pribatutasuna Babesteko Politika (III)

5. Sarbide Kontrolak:

- **Baimenak:** Datuetara sarbidea duten langileek beharrezko baimenak izango dituzte.
- **Erregistroak:** Sarbide guztiak erregistratuko dira.

6. Datuen Kontserbazioa eta Ezabatzea:

- **Kontserbazio Epea:** Datuak beharrezkoak diren denboran bakarrik gordeko dira.
- **Ezabatzea:** Datuak ezabatzeko prozedura seguruak ezarriko dira.



Adibidea. Enpresako Datu Pertsonal eta Pribatutasuna Babesteko Politika (IV)

7. Datuen Eskuragarritasuna eta Zuzenketa:

- **Eskubideak:** Interesdunek beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea izango dute.

8. Prestakuntza eta Sentsibilizazioa:

- **Prestakuntza:** Langileei datuen babesari buruzko prestakuntza eskainiko zaie.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetza. Lan honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimena dauka (CC BY-NC-SA 4.0).

